

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### KANPEZUKO UDALA

#### Ordenantzak behin betiko onartzean egindako hutsa zuzentzea

Hutsa antzeman da ordenantzen behin betiko onarpen erabakian, ALHAOren 26 zenbakian, 2016ko martxoaren 4koan, argitaratutakoan. Horiek horrela, osorik argitaratzen dira berriro, haiek hizkuntza ez sexistara egokitu ondoren, emakume eta gizonen berdintasunerako Kanpezuko ordenantzan jasotakoaren arabera.

#### Kanpezuko Udalaren ludotekaren zerbitzua erabiltzeko oinarritzko arautegia

##### Xedea

Arautegi honen xedea Kanpezuko udal ludotekaren funtzionamendurako eta erabilerarako arauak ezartzea da. Ludotekak bi helburu dauzka: batetik, bertaratzen direnak astialdian hezte; bestetik, sozializatzen eta modu integralean garatzen laguntzea.

##### Zerbitzuaren deskripzioa

Ludoteka Udalaren zerbitzua da: jolaserako berariaz prestatutako espazio batean haurrentzako jostailuak, jokoak, liburuak eta beste material ludiko batzuk daude, eta programazio sozio-kulturala eta hezkuntzakoak prestatzen da, helburu nagusizat hartuta haurrak beraien denbora librean jolastuz garatzea. Ludotekaren jarduna eskualdeko baliabideekin koordinatzen da eta jardueretan begiraleak aritzen dira.

Ludoteka haurrentzako eta nerabeentzako jolaserako espazioa eta hezkuntza zerbitzua da. Hauexek dira beraren xedek: haurren eta gaztetxoek parte hartzea sustatzea; aisia eta denbora liberarako aukerak eskaintzea; jolasaren eta zenbait lantegi eta jardueraren bidez haurren eta nerabeen garapen integrala bultzatuko duten baloreak, jarrerak eta jokaerak sustatzea; helburu horietan heldu arduratsuek parte hartzea.

Horrez gainera eskolatik kanpo euskaraz bizitzeko eta euskara sustatzeko lekua ere bada.

0 - 16 urte bitartekoek aisialdiko hezkuntza beharizanak asetzeko zerbitzu hau doakoa da.

Ludotekan 52 pertsona egon daitezke gehienez.

##### Helburuak

– Jolas ingurune batean, haurren eta gazteen garapen kognitiboa, psikomotorra, afektiboa, soziala eta hizkuntzakoak sustatzea ahalik eta modurik osasuntsuenean.

– Haurrei eta gazteei laguntzea irudimena eta sormena lantzen jokoaren bidez.

– Jokoa ez ezik, batez ere komunikazioa, talde lana eta elkarrekiko begirunea ere bultzatzea.

– Elkarbizitzaren alde egitea elkarrekiko errespetua nagusi den giroan.

Ludotekak bete beharreko helburu orokorrak:

– Nortasunaren osoko garapena parte hartze ludiko eta hezitzailearen bidez.

– Haurrei eta gazteei beren kideekin sozializatzen eta harremanak ezartzen laguntzea, jolasa oinarritzko faktorea dela.

Erabiltzaileen adina

Ludoteka 0 - 8 urte bitarteko haurrentzat eta 9 - 16 urte bitarteko gazteentzat da; 8 urtetik beherako umeak pertsona heldu arduradun batekin joan behar dira.

Eskaintzen dituen zerbitzuak:

– Eskueran diren jostailuak: zerbitzu honi esker bakoitza bere nortasunaren arabera eta bere erara jolastu daiteke; hori dela eta, eremu desberdinak prestatuko dira.

– Jokoak: begiraleari eskatu behar zaizkio.

– Gizartea eta kultura sustatzeko jarduerak: astialdiko hezkuntza jarduerak, helburutzat giza balore jakin batzuk sustatzea daukatenak: emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, kultura desberdinen elkarbizitza, ingurumena zaintzea eta errespetatzea, eta elkarbizitza.

– Lantegietan parte hartzea: doakoak izango dira denak eta gaiak programazioan finkatuko dira.

– Teknologia berriak: instalazioetan Interneterako wi-fi konexioa dago, doan.

Jarduerak

Jarduera guztiak hilka antolatuko dira; ordutegiak blokearen arabera aldatu ahal izango da, erabiltzaile guztiek eduki dezaten aukera ikastaro, solasaldi eta jardueretan izateko.

Ludotekako programan jarduera hauek sartuko dira:

\* Jokoak.

\* Lantegiak.

\* Proiektzioak.

\* Hitzaldiak.

\* Ipuin kontalariak.

\* eta abar.

Ludotekako langileak eta beraien egitekoak.

Ludotekaren arduradunak titulu tekniko egokia eduki behar du (hauxe gutxienez: Pedagogiko Lizentziatura; Irakasleen Diplomatura haur hezkuntzan, terapia okupazionalan, animazio soziokulturalean edo aisia eta astialdiko begiraletzan) eta horri dagokion euskara titulua ere bai (gutxienez HE1).

Udalak kontuan eduki ahal izango ditu hauek guztiak: hizkera eta irudi sexistak ez erabiltzea eta hori nola egin jakitea, berdintasunaren arloko prestakuntza, eta genero ikuspegia txertatzea jardueren eta lantegien programazioaren plangintzan, garapenean eta burutzapenean, jarraipenean eta ebaluazioan.

Arduradunak ondoko helburu hauek lortzeko egin behar du lan:

a) Pertsonen arteko komunikazioa erraztea.

b) Parte hartzea eta asoziazionismoa sustatzea.

c) Sormena bultzatzea.

d) Gizarteratzea, elkartasuna, askotarikotasunarekiko errespetua eta berdintasuna sustatzea.

e) Hezkuntza behar bereziak hautematea.

f) Naturari eta ingurumenari errespetua izatea sustatzea.

g) Arau hauek bete daitezten zaintzea (betetzen ez badira, neurri egokiak ezarri ahal izango dira betetzeko).

Jarduerak, asteko plangintza, jendearen arreta eta udal administrazioarekiko harremanak zuzendu eta koordinatu behar ditu; besteak beste:

Antolakuntza:

- Beste erabiltzaile batzuk hartzea: harrera egitea, ludotekaren berri eta zerbitzuaren inguruko informazioa ematea, eta orientazioa eskaintzea.
- Materialen inbentarioak egitea, sailkatzea eta katalogatzea.
- Jarduerak eta programak diseinatzea, gauzatzea eta jarraipena egitea plangintzak ebaluaziora arte.

Hezkuntza:

- Pertsonen arteko komunikazioa erraztea.
- Parte hartzea bultzatzea.
- Sormena bultzatzea taldearen barruan.
- Hezkuntza behar bereziak hautematea.
- Josteta animatzea eta giro atsegina eta lasaia sortzea.

Animazioa:

- Animazio soziokulturaleko jarduerak prestatzea eta burutzea.
- Taldeko programa eta jarduera ludikoak sortzea, antolatzea eta egitea.
- Proiektuak gauzatzea, lana programatzea eta emaitzak ebaluatzea jarduna berritzeko.
- Taldekideak adoretzea beren kabuz suspertzeko.

Jardun arauak:

- Erretzea debekatuta dago.
- Ludotekako materiala ezin da kanpora atera.
- Jolaserako material bakoitza beraren tokian gorde behar da joko amaitutakoan; hori egitea ezinbestekoa da beste joko bat eskatzeko.
  - Erabiltzaileek nornahik erabiltzeko moduko materialak biltzen lagundu behar dute, ahal duten heinean, bakoitzak berak erabilitakoak. Umeen gurasoek bildu behar dituzte materialak, bai eta jolaslekuak atondu ere.
    - Ezin da jan piparik, kakahueterik ez bestelako janari oskoldunik.
    - Ludotekako instalazioetan eta korridoreetan ezin da korrika egin.
    - Bizikletak, patineteak eta baloiak ludoteka sarreran utzi behar dira.
    - Ereku jakin batean (haurren txokoa) ezin da oinetakoekin sartu; oinetakoak berariaz jarritako armairu batean utzi behar dira.
    - Jolaskideen jokoak eta jarduerak errespetatu behar dira; ezin dira besteen jokoak eragotzi.
    - Zerbitzua erabiltzen dutenek joko materialak eta altzariak ondo erabiltzeko arduratu behar dute, gaizki erabiliz narriatu ez daitezen.
- Zerbait gaizki erabilia narriatzen bada, erabiltzaileak haren kostua ordaindu beharko du edo berria erosi.
- Erabiltzaileek sortzen den zaborra birziklatzen lagundu behar dute; horrela ingurunearekiko errespetua eta ingurunearen zaintza bultzatuko dira.

– Ludotekako mahai jokoak erabiltzeko ezinbestekoa da bazkide txartela edukitzea. Txartela eskuratzen duenak materiala zentzuz erabiltzeko eta egoera onean itzultzeko ardura hartzen du. Bazkide txartela eskuratzeko hauxe egin behar da:

– Inskripzio fitxa bete; umearen izena eta adina adierazi behar dira. Inskripzioa modu ludi-koan egingo da ludotekan, berariaz prestatuko diren lantegietan.

– Txartela doakoa da.

– Txartelak begiraleak gordeko ditu; horretarako abenduaren 13ko 15/1999 Legeak, datu pertsonalak babestekoak, ezartzen dituen baldintzak beteko ditu.

– Funtsezko helburu hauek sustatu behar dira: partekatzea eta errespetatzea.

– “Haurren txokoa” errespetatu behar da: ezin da sartu 4 urtetik gorako umerik.

– Ludoteka eta liburutegia espazio berean daude; beraz, eremuak errespetatu behar dira, bakoitza bere xederako erabili behar da eta liburutegian isilik egon behar da.

– Instalazioetan botikina dago.

Kanpezuko Udalak ez du bere gain hartuko inolako erantzukizunik erabiltzaileei ezer lapurtuz gero, ez eta haiek ezer galduz gero ere.

Kanpezuko Udalak ez du bere gain hartuko inolako erantzukizunik erabiltzaileen ezbeharren-  
gatik, ezbeharra instalazioen akats bategatik gertatzen denean izan ezik.

Egutegia eta ordutegia

Ludoteka zerbitzuaren jardunean bi ziklo egongo dira urtean; egutegia Udalak ezarriko du eta jarduerak hasi baino lehen jakinaraziko da.

Erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak.

Eskubideak:

– Udal ludoteka erabiltzea, hain zuzen ere bertako ondasunak eta zerbitzuak.

– Programatutako lantegiei eta jardueri buruzko informazioa eskatzea.

– Ludotekan egiten diren jardueretan parte hartzea eta instalazioak eta materialak berdintasun erregimenean erabiltzea.

– Usteak, proposamenak eta kexak aurkeztea eta erreklamazioak edota iradokizunak egitea, bai zerbitzua kudeatzen duten langileei, bai Udalari.

Betebeharrak:

– Ludotekako ondasunak eta zerbitzuak behar bezala erabiltzea, bai instalazioak, bai materialak.

– Eremuak errespetatzea (haurren txokoa eta liburutegia).

– Ludoteka erabiltzeko arautegia betetzea.

– Zentrora sartzeko eta handik irteteko, ezarritako ordutegia errespetatzea.

– Erabiltzaileek ezin dute sartu ludotekan kanpotik ekarritako bizikletarik, patineterik ez baloirik.

– Gainerako erabiltzaileak eta zerbitzuaren ardura duten langileak errespetatzea.

– Zerbitzuko arduradunek instalazioen eta materialen erabilerari eta programatutako jardue-  
ren garapenari buruz ematen dituzten jarraibideei eta aginduei jaramon egitea.

**Osasuna:**

– Gaixotasun baten zantzurik (sukarra, beherakoa, konjuntibitisa, pedikulisia –zorriak– edo infekto-kutsakorren bat edukiz gero, hobe umeak eta gazteak ludotekara joaten ez badira.

– Ludotekaren erabiltzaileen higiene pertsonala zaindu behar da.

(Jostailuak, jokoak eta liburuak ez zikintzeko, erabili baino lehen eskuak garbitu behar dira / Neguan zapatak astindu behar dira sarrerako oin zatarrean / Aterkiak...)

**Gatazkak konpontzea.**

Arautegi honetan arautzen ez den gatazkaren bat gertatzen bada, Udalak adostasunez konpontzearen alde egingo du, hau da, ahaleginak egingo ditu kontrako jarrerak bateratu eta alderdi guztiak asetzen dituen konponbidea aurkitzeko, elkarrekin lanean jarraitu ahal izateko helburu komunak lortzeko bidean.

**Arau-haustekak.**

Arau haustea da arautegi honetan ezartzen diren betebeharrak bat ez betetzea, osorik zein zati bat.

**Arau hauste arinak dira:**

– Instalazioak eta materiala behar den ardurarekin ez erabiltzea.

– Zerbitzuaren arduradunen jarraibideei eta aginduei kasu ez egitea.

**Honako hauek arau hauste larriak dira:**

– Arau hauste arinak behin eta berriro egitea.

– Gainerako erabiltzaileak ez errespetatzea.

– Zerbitzuaren arduradunak ez errespetatzea.

– Ludotekako instalazioei edo materialei nahita kalte egitea.

– Giroa nahastea eta programatutako jarduerak ondo egitea eragozteak.

**Arau hauste oso larriak dira:**

– Arau hauste larriak behin eta berriro egitea.

**Zehapenak.**

Arau hauste arina egiten duena ludotekatik kanporatuko da astebeterako.

Arau hauste larria egiten duena ludotekatik kaleratuko da hilabeterako; horrez gainera, bidezkoa izanez gero, materialei edo instalazioei egindako kalteen kostuaren besteko isuna ezarriko zaio.

Arau hauste oso larria egiten duena behin betirako kaleratuko da; horrez gainera, bidezkoa izanez gero, materialei edo instalazioei egindako kalteen zenbatekoa hala biko isuna ezarriko zaio.

Norbaiti errespetua galduz gero, besteekin erasokor jokatz gero eta antzeko kasuetan neurri egokiak ezarriko dira, eta gerta liteke ludoteka erabiltzeko eskubidea galtzea ere.

**Rokodromoko instalazioak erabiltzeko arautegia****Nola erabili:**

Nornahik erabil dezake, eta inolako ordutegi mugarik gabe gainera, baldin eta IOAR kirol elkarteko eskalada taldeko kide batek arduradun lanak egiten baditu.

Rokodromoa erabiltzeko arauak:

- a) Jantzi eta oinetako egokiak (katu oinak edo kiroletako oinetakoak) erabili behar dira; ezin da eskalatu kaleko arropekin.
- b) Koltxonetak ezbeharretan minik ez egiteko dira; ezin dira erabili beste ezertarako.
- c) Eskalatzen ari diren erabiltzaileak baizik ezin dira egon instalazioan.
- d) Rokodromoaren erabileraren erantzuleak erabiltzaileak izango dira.
- e) Udalak ez du edukiko inolako erantzukizunik erabiltzaileek instalazioan kirolean aritzean ezbeharrengatik jasaten dituzten lesioengatik, ez eta instalazioak gaizki erabiltzeagatik jasaten dituztenengatik ere.
- f) 16 urtetik beherako pertsonak pertsona heldu arduradun baten ikuskapenarekin baino ezin dute erabili rokodromoa.
- g) Rokodromoa erabiltzen dutenek ikusten dituzten arazo eta akats guztien berri eman behar diete Udalaren arduradunei.
- h) Erabiltzaileen ardura da rokodromoa ondo mantentzea, garbitzea eta zaintzea.
- i) Ezin da oztopatu galdaren gelako larrialdietako irteera.

Debekuak:

- a) Erabat debekatuta dago instalazioetan erretzea.
- b) Erabat debekatuta dago edari alkoholduinak sartzeta eta kontsumitzea.
- c) Erabat debekatuta dago animaliak sartzeta.

Udalaren ordenantza, autokarabanak eta etxebizitza ibilgailuak Santikurutze Kanpezun berariaz atondutako eremuan gaua emateko nola aparkatu behar diren arautzen duen udal ordenantza.

#### Xedapen orokorrak

##### **1. artikulua. Xedea**

Ordenantza honek bi xede dauzka: batetik, Santikurutze Kanpezun, Udalaren kirol instalazioen ondoan, autokarabanak eta etxebizitza ibilgailuak aparkatzeko berariaz atondutako eremua nola erabili behar den arautzea, bertako natur baliabideak eta espazioak babesteko eta pertsonen segurtasuna eta aparkaleku publikoak herri bideen erabiltzaile guztien artean modu ekitatiboan txandakatzea eta banatzea bermatzeko; bestetik, kanpaldi librearen debekua, araudi autonomikoan ezarritakoa, betearaztea.

##### **2. artikulua. Kanpaldi librearen debekua**

Zehapena ezarriko zaie kanpaldi librearen debekua hausten dutenei Kanpezuko udalerrian autokarabanetarako gordetako aparkalekuan. Ondoko artikuluetan kanpaldi librearen eta autokarabana aparkatzearen arteko desberdintasuna zertan den zehaztuko da.

##### **3. artikulua. Kanpaldi librea**

Hauxe da kanpaldi librea:

- a) Autokarabanatik kanpo aisialdirako gauza edo tresna bat jartzea, eta erraz garraiatzeko moduko elementuren bat, zimendurik ez daukana, erabiltzea ere bai.
- b) Autokarabana ordenantza honetan ezartzen dena baino luzeago egotea aparkalekuan.
- c) Kanpezuko Udalaren langileen edo Ertzaintzaren iritziz Udalaren beste ordenantzetan ezartzen denarekin bat ez datozen jarduera guztiak.

#### 4. artikulua. Aparkatzea eta kanpatzea: desberdintasunak

Autokarabanak eta antzeko ibilgailuak hiri barruko bideetan gelditu eta aparkatu daitezke, baldin eta arriskurik sortzen ez bada, eragiketa Legearekin bat etorritz egiten bada, zirkulazioa eragozten ez bada eta bidean dabiltzanak arriskuan jartzen ez badira, eta ibilgailua baimendutako tokian uzten bada berariaz ezarrita dagoen bezala.

Ondoko kasuan (argitzeko eta zantzu modura baino ez da aipatzen) autokarabana ez dago kanpatuta, baizik eta aparkatuta:

1. Zorua gurpilek edo segurtasun altxagarriek bakarrik ukitzen dute (hanka egonkortzaileak ez daude eraitsita, ez eta bestelako tramankulurik ere).

2. Autokarabanak itxita dagoela okupatzen duen eremua baino ez da okupatzen; hau da, leihoak itxita daude (irekita edo kanpora zabaldua dauden leihoek ibilgailuaren perimetroaz harago dagoen eremua okupatzen dute) eta ez dago aulkirik, ez mahairik, ez olanarik hedatuta, besteak beste.

3. Ez da isurtzen inolako fluidorik, ez kutsagarrikerik, ez bestelakorik; salbuespenak: motorraren errektuntzak sortu eta ihes hodiaren bitartez kanporatzen direnak; gizalegez jokatzeko ez denean edota jarduera osasungaitzen bat egiten denean (bide publikoan ura hustea, esaterako) sortzen direnak. Herritarrek atsedean hartu ohi duten orduetan ez da egiten zarata gogaikarrikerik (esaterako, elektrizitate sorgailuarena) eta ekipo akustikoak ez daude altuegi biztuta, eta egunez aldi luzeetan ere ez.

#### 5. artikulua. Geratzea eta aparkatzea

Ibilgailu hauek gehienez 72 ordu egon daitezke aparkatuta toki berean; hala ere, badago salbuespen bat: Kanpezuko zaindariaren jaietan 96 ordu egon daitezke aparkatuta.

Gainera Udalak autokarabanak herriko bideetako eremu jakin batzuetan aparkatzea debekatu ahal izango du, edo aparkaldia mugatu, kasu hauetan: etxebizitza ibilgailuaren tamainak edo baimendutako gehieneko masak bideko segurtasuna arriskuan jartzen badu edo zirkulazioa eta aparkatzeko aukerak eragozten baditu.

Tasa bat ezarriko da urak aldatzeko zerbitzuagatik.

#### 6. artikulua. Zerbitzuguneak

Autokarabanen zerbitzugunea Santikurutze Kanpezun dago, Udalaren kirol instalazioen ondoan. Hauexek dira hura erabiltzeko arauak:

1. Horrelako ibilgailuen sailkapena:

Ordenantza hau autokarabana eta etxebizitza ibilgailu homologatu hauei aplikatzen zaie:

- 2448 (etxebizitza furgonia)
- 3148 (etxebizitza ibilgailu mistoa)
- 3200 (autokarabana, zehaztu gabea, baimendutako gehieneko masa 3.500 kg-tiko gorakoa ez duena)
- 3248 (etxebizitza autokarabana, baimendutako gehieneko masa 3.500 kg-tiko gorakoa ez duena)
- 3300 (autokarabana, zehaztu gabea, baimendutako gehieneko masa 3.500 kg-tik gorakoa duena)
- 3348 (etxebizitza autokarabana, baimendutako gehieneko masa 3.500 kg-tik gorakoa duena)

2. Erreserbatutako zonetan etxebizitza gisa katalogatutako ibilgailuak bakarrik aparkatu ahal dira. Bestelako ibilgailuak, adibidez kamioiak, karabanak, turismoak, eta abar, ez badira etxebizitza gisa homologatu eta ez badaukate komunik eta erabilitako urak biltzeko biltegiak, ezin dira aparkatu.

3. Aparkatutako ibilgailuek uneoro errespetatu behar dituzte zoruan aparkatzeko marratzu diren espazioen mugak. Ezin dute kanpora mahairik, aulkirik, olanarik, eguzkitakorik, estalkirik edo bestelakorik atera.

4. Gehienez 72 ordu egon daitezke bertan, ibilgailua geratzen denetik plaza uzten den arte. Ezinbestekoetan edo beharizana dagoenean bakarrik, eta Alkatetzak alde aurretik baimentzen badu, gainditu ahalko da egonaldiaren gehieneko iraupena.

5. Autokarabanek eta antzeko ibilgailuek sortzen dituzten ur gris eta beltzak husteko espazio bat edukiko dute erabiltzaileek. Gainera, tratatu gabeko uraren hargune bat edukiko dute. Zona honetan ezin da aparkatu. Erabiltzaileek erabiltzeko da, eta erabili ondoren garbitu egin beharko dute. Era berean, hemen edozein motatako ibilgailuak garbitzea berariaz debekatzen da.

6. Zerbitzua dohainik emateko aldi bat onartzen da. Probaren gisako hilabete batzuk igarotzen direnean, prezio publiko bat finkatuko da autokarabanak zerbitzuguneetan sartzegatik eta bertako zerbitzuak eta udalaren birziklatze guneak erabiltzeagatik. Une egokian zehaztuko da prezio publiko hori; hala eta guztiz ere, prezio hori udal ordenantza fiskaletan eguneratu edo aldatu ahal da.

7. Udalak edo Ertzaintzak zerbitzugunea zaindu eta jagoteko eta elkar errespetatzeko eta gizalegez jokatzeko ematen dituzten jarraibide guztiak beteko dituzte zerbitzuguneetako erabiltzaileek. Era berean, udalak edozein unetan erabil ditzake zerbitzuguneetako eremuak beste erabilera batzuetarako. Horrek ez du kalte ordainik sorraraziko zerbitzuguneen erabiltzaileentzat.

8. Debekatuta dago bide publikoan, eta bereziki autokarabanak aparkatzeko plazetan, kanpatzeko trasteak jartzea, hala nola mahaiak, aulkiak edo estalkiak, salbu eta berariaz baimentzen diren lekuetan.

9. Udalak udalerrian horrelako espazioak jartzea sustatu ahalko du. Horrelakoak jabetza publiko nahiz pribatuak izan ahal dira. Betiere erabilera publikokoak izango dira.

10. Inguruko bizilagun eta erabiltzaileei zarataren ondorioz eragozpenik ez sortzeko, zerbitzugunean autokarabanak sartzeko eta irteteko eta zerbitzuak erabiltzeko ordutegi bat finkatuko da: 8: 00etatik 23: 00etara.

11. Udalaren instalazioen erabilera eta aprobetxamendu publikoa ahalik eta onenak izan daitezen, autokarabanen zerbitzugunearen erabiltzaile guztiek udalari jakinarazi beharko dizkiote gertatzen diren arazo tekniko, matxura, narriadura, gabezia edo erabilera desegoki guztiak.

12. Zerbitzugunearen barruan, kategoria guztietako ibilgailuen gehieneko abiadura 30 km/h izango da. Betiere, ibilgailuek ezin dute zaratarik egin bat-batean azeleratuz, eraldatutako ihes hodian bidez edo bestelako inguruabar ez-normalengatik. Gainera, ezin dituzte gainditu udal ordenantzek edo aplikatu beharreko legeriak finkatutako zaraten eta gas emisioen mugak, egotekotan.

## **7. artikulua. Ikuskaritza**

Ordenantza honetako edozein artikuluren, edo ordenantza garatzeko Alkatetzak ematen dituen xedapenen, kontra egitea edo horiek ez betetzea arau haustea izango da; orduan toki korporazio honi egokituko zaio ikuskapen eta zehapen funtzio egokiak betetzea.

Udaleko zerbitzu anitzetako langileak izango dira ordenantza hau betetzen dela zaindu behar duten pertsonak.



**8. artikulua. Eskumena eta zehapen prozedura**

1. Zehapen prozedura hasteko eta ebazteko eskumena duen organoa Kanpezuko Udaleko alkatea, edo hark eskuordetzen duen pertsona, izango da.

2. Zehapen prozedura abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretuak, zehatzeko ahala gauzatzeko araudia onartzen duenak, ezarritakoaren arabera beteko da.

3. Espedientearen ebazpena gehienez ere urtebeteko epean jakinarazi beharko da, prozedura hasten denetik aurrera zenbatuta, eta interesdunak planteatutako kontu guztiak eta prozeduratik eratortzen direnak erabakiko ditu.

Prozedura hasten denetik urtebeteko epean ez bada zehapen ebazpena jakinarazi, prozedura iraungiko da eta jarduketak artxibatuko dira, interesdunak eskatuta, edo bestela ebazpena emateko eskumena daukan organoak egingo du, ofizioz, salbu eta prozedura eteteko arrazoia interesdunei egotzi behar bazaie edo epaile baten jardunaren ondorio bada.

**9. artikulua. Arau hausteak eta zehapenak**

1. Ordenantza arautzaile honen 3. artikuluan xedatutakoa bete gabe autokarabanak aparkatzea arau hauste arin izango da, eta 90 euroko isunaz zehatuko da, baldin eta arau hauste horrek bide publikoa oztopatzea ez badakar.

1. Ordenantza arautzaile honen 4. artikuluan xedatutakoa bete gabe autokarabanak aparkatzea arau hauste larri izango da, eta 300 euroko isunaz zehatuko da, baldin eta arau hauste horrek bide publikoa oztopatzea badakar.

3. Arau hauste larria izango da 5. artikuluan ezarritako debekua bete gabe aparkatzea, eta 300 euroko isunaz zehatuko da.

4. Kanpatze librearen debekua ez betetzea arau hauste larria izango da eta 300 euroko isunaz zehatuko da. Isuna 450 euroraino gehitu ahalko da jarduera hori eginez hiri altzariak narriatzen dituztenen kasuan edo kanpatu duten zona, axolagabekeriaz, zikintzen dutenen kasuan; horrez gain, egindako kalteak konpontzera behartuta egongo dira. Isuna modu horretan gehituko da, halaber, barbakoak edo antzekoak jartzen diren kasuan, ingurunea kaltetuz edo arriskuan jarriz.

**10. artikulua. Kautelazko neurriak**

Indarrean dagoen zirkulazioko udal ordenantzan aipatzen diren kasuetan arau haustea egiten duen ibilgailua ibilgetu beharko da, edo bide publikotik atera.

Arau hauste baten ondoren arau hausleak ez badu frogatzen espainiar lurraldean non daukan ohiko bizilekua, agente salatzailak isunaren zenbatekoa behin-behinean finkatuko du. Zenbateko hori ez bada ordaintzen edo haren ordainketa ez bada bermatzen zuzenbideak onartzen duen edozein modutan, ibilgailua ibilgetuko da.

**11. artikulua. Erantzukizuna**

Kanpezuko autokarabanen aparkatze gunea ez da zaindutako eremua. Beraz, Kanpezuko Udalak ez du erantzukizunik hartuko aparkatutako autokarabanetan gorabeherarik, lapurretarik edo antzekorik gertatzen bada.

Lege honetan xedatutakoa haustearen erantzukizuna arau haustea sorrarazten duenarena izango da zuzenean.

Arau haustea egiten duen ibilgailuaren jabeak edo errentariak, behar bezala agintzen zaio-nean, arau haustearen erantzulea den gidaria modu sinesgarrian identifikatu behar du. Bete-behar hori betetzen ez badu, prozedura izapide egokian, 300 euroko isuna ezarriko zaio, arau hauste larri baten egile gisa.

**12. artikulua. Autokarabanisten betebeharrak**

Ordenantza honetan ezarritakoa bete beharraz gain, autokarabanistek betebeharrak hauek izango dituzte:

1. Mugimendu autokarabanistak estatuetako eta Europako elkarten bidez finkatutako jokabide eta etika kodeak errespetatzea. Natura eta ingurumena zaindu behar dituzte, eta bide publikoaren gainerako erabiltzaileak eta, oro har, udalerriko biztanle eta bisitari guztiak errespetatu.

2. Trafikoko eta bide segurtasuneko arauak errespetatuz gidatzea, ahal den neurrian gainerako gidariei aurreratzea eta maniobrak egitea erraztuz.

3. Edozein motatako zarata gogaikaririk ez egitea, batez ere soinu aparatuetatik, irratitik, telebistatik, energia sorgailuetatik edo etxeko animalietatik datozenak, hiriko bide publikoan edo horretarako egokitutako zonetan aparkatuta daudenean.

4. Hiri hondakin solidoak biltzeko ontzi egokiak eta hondakin urak biltzeko ekipamendu egokiak erabiltzea.

5. Aparkatzeko espazio fisikoa okupatzea, beharrezkoak diren mugen barruan.

6. Aparkatzerakoan eragozpen funtzionalik ez sortzea, motordun ibilgailuen nahiz oinezkoen trafikoaren segurtasuna arriskuan ez jartzea, monumentuen ikuspegia ez oztopatzea, eta eraikin publiko edo pribatuen eta establezimendu komertzialen sarbideak ez oztopatzea.

**Azken xedapena**

Ordenantza hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Guztiak jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Santikurutze Kanpezu, 2016ko maiatzaren 20a

*Alkatea*

**IBERNALO BASTERRA TXASKO**